



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Saila: KONTRATAZIOA

Espediente zk.: 17-692

ANDRA MARI KALEAN ESTALKI BAT JARTZEKO
PROIEKTUAREN LANAK EGITEA PROZEDURA IREKI BIDEZ
KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA
PARTIKULARREN AGIRIA

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1.- ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Subjektu kontratatzailea Amorebieta-Etxanoko Udala da, hots, Toki Administrazioaren nortasun juridiko publikoa duena.

Kontratazio-organoa Amorebieta-Etxanoko Udaleko Alkatea da, azaroaren 24ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren (aurrerantzean SPKLTB) bigarren xedapen gehigarriak emandako eskumenaren arabera.

Kontratazio-organoan kontratazio-mahaia egongo da, modu honetan eratuta:

- Mahaiburua. Amorebieta-Etxanoko Udalburua edo berau ordezkatzeko duena.
- Bokalak:
 - Hirigintza, Obra eta Etxebizitza zinegotzi ordezkaria edo honek eskuordetzen duen zinegotzia.
 - EH Bildu taldeko zinegotzi bat.
 - HE taldeko zinegotzi bat.
 - PSE-EE taldeko zinegotzi bat.
 - Udalaren idazkaria edo funtzionario ordezkaria.
 - Udalaren kontu-hartzailea edo funtzionario ordezkaria.
 - Udaleko arkitektoa edo honek eskuordetzen duen funtzionarioa.
 - Administrazio Orokorreko teknikaria edo funtzionario ordezkaria. Honek, era berean, mahaiaren idazkari-lanak egingo ditu.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

2.- KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honetan oinarrিতuta gauzatuko den obra-kontratuaren xedea Andra Mari kalean estalki bat burutzeko proiektuaren lanak egitea izango da. Proiektua Hertz Arkitektura Bulego, S.L. P.k egin zuen eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko abenduaren 23an egindako bileran hasiera batean onartu zuen. Jendaurrean ikusgai jarri zen 2016ko abenduaren 30eko 248 zk.dun BAOean argiraturaz. Proiektua 2017ko martxoaren 10ean egin zen Tokiko Gobernu Batzordeak behin betiko onartu zuen.

Andra Mari kaleko estalkia burutzeko proiektua, nahitaez osatzen duten dokumentuekin, planoak, baldintza teknikoen agiria, segurtasun eta osasunari buruzko azterlana, kalitate plana, etab., baita agiri hau ere, kontratuaren barruan sartuko dira eta bere egunean legezkatuko den obrari buruzko esleipen kontratuaren zatiak izango dira.

CPV kodea: 45223000-6 Egiturak eraikitze lanak.

3.- BETEARAZPEN EPEA

Proiektuari dagozkion obrak guztira **4 (LAU) HILABETETAN** egingo dira, zuinetaren egiaztapen akta sinatzen denetik zenbatzen hasita.

Zuinetaren egiaztapen akta gehienez astebete sinatu beharko da, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epea igarota kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik akta ez bada sinatu, kontratuaren gauzatze epea hasitzat joko da.

Finkatutako epe mailakatuak betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren epe partzialak Obra Planetik ondorioztatukoak izango dira. Bestela, Administrazioak lan programa onartzen duenean finkatuko dira.

Epe guztiak Administrazioak obra hasteko baimena ematen duenean hasiko dira zenbatzen, hain zuzen ere, zuinetaren aktarekin bat, sinatzen duen egintza berean.

Kontratista behartuta egongo da kontratua gauzatzeko finkatutako epe osoaren barnean kontratua betetzera, baita kontratua gauzatzeko ezarritako epe partzialak betetzera ere. Kontratistak berandutzea gauzatu arren, ez da beharrezkoa izango Administrazioak aurretiaz eskaerarik egitea.

Kontratuan ezarritako epea bakar-bakarrik luzatu ahal izango da indarrean dagoen legeriak ezarritako inguruabar eta baldintzak betetzen direnean.

4.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezio osoa, lizitazioaren oinarri izango dena, hau da:



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

**BERREHUN ETA HOGEITA HAMABI MILA SEIEHUN ETA HOGEITA
BEDERATZI EURO ETA BERROGEITA LAU ZENTIMO (232. 629,44 €).**

**BEZ %21: BERROGEITA ZORTZI MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA
HAMABI EURO ETA HAMAZORTZI ZENTIMO (48. 852,18 €).**

**GUZTIRA: BERREHUN ETA LAUROGEITA BAT MILA LAUREHUN ETA
LAUROGEITA BAT EURO ETA HIRUROGEITA BI ZENTIMO (281. 481,62 €).**

Zenbateko hauek lizitatzailerik hobetu ahal izango dituzte. Kopuru horietan barneratuztat joko dira kontratu horretako xede diren lanak gauzatzeko beharrezkoak diren kostu guztiak.

Kontratuaren prezioaren barruan unitateko prezioen zerrenda sartuko da eta prezio horiek izango dira kontratua bete bitartean indarrean egongo direnak. Lizitatzailerik ez badituzte prezio horiek aurkezten, Administrazioaren aurrekontuan agertzen direnak eskaintzen dituztela ulertuko da. Beharrezko ehuneko bera edukiko dute lizitatzailerik aurkeztu duen proposamen ekonomikoak eta Administrazioaren aurrekontuko prezioek.

Lizitazioaren aurrekontu oinarria gainditzen duten proposamenak zuzenean baztertuak izango dira.

Kontratuaren gutxi gorabeherako balioa (APKLTBren 88. art.): 232. 629,44 €.

5.- FINANTZAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, indarrean dagoen aurrekontukoaren kargura finantzaketa aurrez ikusia dago.

6.- ORDAINTZEKO MODUA

Gauzatutako obren zenbatekoa zuzendari eskudunak egindako ziurtagirien bitartez egiaztatuko da. Gero, SPKLTBak 216.4. artikuluan xedatutako epe eta baldintzekin bat ordainduko da.

Emandako ziurtagirietatik eratorritako ordainketak kontura egindako ordainketak izango dira, eta azken neurketan egingo diren zuzenketa eta aldaketan mende egongo dira. Hala ere, horrek ez du inola ere eragingo obrak onetsi eta onartu direnik.

Dagokion faktura elektronikoa izan beharko da 2.000 euro baino gehiagokoa denean, BEZ barne. Edozelan ere, zenbateko hori baino baxuagoa izan arren ere faktura elektronikoa aurkeztu ahal izango da hala nahi izanez gero.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Faktura elektronikoak egiteko beharrezkoak diren DIR 3 kodeak ondokoak dira:

Kontabilitate bulegoa	Amorebieta-Etxanoko Kontu-hartzaitza	L01480031
Kudeatzen duen organoa	Amorebieta-Etxanoko Udala	L01480031
Izapidetzen duen unitatea	Amorebieta-Etxanoko Udala	L01480031

Faktura elektronikoa HORNITZAILEAREN ATARIAN aurkeztuko da, Udaleko web orriaren bidez edo ondoko helbidean: <https://e-udala.amorebieta-etxano.eus:8089/fakturak>.

7.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratuaren gauzatze epea (**4 hilabete**) kontuan hartuta, **ez dira prezioak berraztertuko**.

8.- BERMEAK

Ekonomikoki proposamen onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailerak, hartutako betebeharren betepena bermatzeko xedearekin, lizitazioaren oinarritzko prezioaren %5eko behin betiko bermea eratu beharko du, BEZa kanpo.

Aipatutako bermea eratzeko epea hamar egun balioudunekoa izango da, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatuta. Horrez gain, SPKLTBren 96. artikuluan ezarritako baliabideetatik edozein erabili ahal izango da. Abalaren bidez eraturako behin betiko bermearen eraketa erakunde abal-emaeleak egindako adierazpen arduratsuaren bidez egiaztatuko da, agiri honen I. Eranskinean jasotako eredia aintzat hartuta. Kauzioko aseguru-kontratuaren bidez behin betiko bermearen eraketa erakunde aseguratzailerak egindako adierazpen arduratsuaren bidez egiaztatuko da, agiri honen II. Eranskinean jasotako eredia kontuan izanda.

Adierazitako epean eskaera ez bada behar bezala betetzen, lizitatzailerak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da. Kasu horretan, eskaintzen sailkapen ordenari jarraituz, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzailerari.

Kontratua aldatzearen ondorioz, horren prezioa aldatzen denean, bermea doitu egin beharko da, batik bat, aldatutako prezioari begira behar besteko proportzioa izan dezan, hamabost eguneko epean, enpresariari aldaketa-erabakia komunikatzen zaion datatik zenbatuta.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Bermea SPKLTBren 102. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, behin kontratuaren likidazioa onetsita eta bermearen epea igarota, betiere adjudikaziodunaren erantzukizunak sortzen ez badira.

9.- KONTRATUAREN BETEARAZPENA

Obren kontratua zuinetaren egiaztapen akta sinatzearekin hasiko da gauzatzen. Hori gehienez hilabeteren buruan egin beharko da, kontratua legeztatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. **Obrak, berriz, ez dira hasiko eskatutako baimen guztiak ez dituzten bitartean.** Zuinetaren egiaztapen akta kontratuaren barruan sartuko da, eskakizunetarako.

Kontratua kontratistaren arrisku eta zorira gauzatuko da eta izandako kalte-galerengatik kalte-ordaina jasotzeko ez du eskubiderik izango, ezinbesteko kasuetan izan ezik. Horiek SPKLTBak 231. artikuluan aurrez ikusten ditu eta betiere kontratistaren aldetik zuhurtziagabekeriako jarduerarik ez dagoela kontuan hartuko da.

Nolanahi ere, obrak agiri honetan, zehaztapen teknikoetan eta esleipendunaren eskaintzan xedatutako baldintzei zorrozki erreparatuz egingo dira. Era berean, SPKLTB eta gainerako araubidezko arauak ez dira baztertuko. Horiez gain, hori guztia interpretatuz obren zuzendari eskudunak eta, bidezkoa bada, kontratuaren arduradunak, bakoitza bere aginpideen eremuan, kontratistari ematen dizkion argibideak jarraitu beharko dira. Bereziki, kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolpean garatuko da eta ahalmen horiek idatziz nahiz ahoz erabiliko ditu.

Kontratistari edo horren mendeko pertsoneri egotzi dakizkiekeen egintzen edo ez-betetzeen ondorioz kontratuaren garapena egokia izatea zalantzan jartzen bada, Administrazioak kontratua burutzeko ordena egokia erdietsi edo berrezartzeko beharrezkotzat jotako neurriak hartzea agindu ahal izango du.

Obrak seinaleztatzea

Kontratistak bere kargura jarri beharko ditu obrara sartzeko, lanean ari diren zonan zirkulazioa adierazteko eta puntu arriskutsuak azaltzeko seinaleak, bai zonan, bai inguruetan. Halaber, seinale osagarriak instalatu edo instalatutakoak aldatzeari buruz Administrazioak idatziz emandako aginduak bete beharko ditu.

Kontratistak egunean 24 orduz eta obrak oso-osorik amaitu arte zainduko du seinaleen egoera ona eta eraginkortasuna eta konpromiso hori ez betetzearen ondorioz izan daitezkeen gizakiekiko eta materialekiko kalteez bera izango da arduradun bakarra.

Bestalde, instalatu behar diren seinale eta baliza motei dagokienez, “BAT arauak”, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailak argitaratutakoak, eta Herri Lan eta Ingurumen Ministerioiko Errepideen Zuzendaritza Orokorraren 8.3-IC Instrukzioak xedatutakoak kontuan hartuko dira.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Sare, zerbitzu eta ondasun publikoak aldatzea

Obrek edateko uraren hornidurari, lorategiei, semaforo sareari, bideen sistemari edo beste edozein zerbitzu edo ondasun publikori eragiten badizkiete, proiektuak aurrez ikusitako neurriak alde batera utzita, kontratistak zerbitzuko titular arduradunei hasi baino lehen jakinaraziko die, zerbitzuek eta ondasunek, baita beren erabiltzaileek ere ahalik eta eraginik txikiena izan dezaten beren irizpidea kontuan hartzeko.

Kontratistaren kontura izango dira obra gauzatzeko sarbideak egin, kontserbatu, lehengoratu eta konpontzea, bai herri bideetan, baita pribatuetan ere. Era berean, erabiltzeko erakunde eskudunetatik lortu behar dituen baimenak izapidetuko ditu, kontratu honen berezko lanak gauza ditzan bere makineria edota azpikontratazioaren bidez zuzenean edo zeharka kontratatutakoa behar badu.

Zoru sintetikoa jartzea

Kontratu honetako lanak amaitu ondoren, umeentzat jolas berriak jartzea aurreikusita dago. Ondorioz, zoru sintetikoa jartzeko proiektuan jasota dagoen partida, 07. 04 zk. duena, seguruenik ez da gauzatu. Horren ondorioz, 16. 916,50€-ko partida bat gauzatu barik geldituko litzateke, egikaritzapen materialeko aurrekontuaren %8,65 hain zuzen ere.

10.- KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

Lan eta gizarte arloko betebeharrak

Kontratuaren xede diren lanetan erabiltzen dituen langileei dagokienez, kontratistak lanaren, gizarte segurantzaren eta lan arriskuen prebentzioaren arloan indarreko xedapenak zorrozki beteko ditu eta azkenekoei buruz, bereziki erreparatuko dio 1627/1997 Errege Dekretuak, urriaren 24koak, eraikuntza obretan segurtasunaren eta osasunaren gutxieneko xedapenak zehazten dituenak, xedatutakoari. Helburu horrekin, Administrazioari Segurtasun eta Osasun Plana proposatuko dio, onar dezan eta lan zentroa gorabeheren liburuaz hornituko du, Errege Dekretuak 7. eta 13. artikuluan xedatzen duen bezala.

Kontratistak, azpikontratistak eta, bidezkoa bada, langileek Errege Dekretuak 11. eta 12. artikuluetan aurrez ikusten dituen arauak bete beharko dituzte.

Adjudikaziodunak bere gain hartuko du hari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik haren langileek izan ditzaketen istripuen erantzukizun osoa.

Administrazioak adjudikaziodunari eska diezaioke, edozein arrazoiengatik, kontratu honetan aurreikusitako lanak gauzaten diharduten langile guztien laneko betebeharrak ongi betetzearekin lotura duen edozein gai egiaztatzea.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Kontratu honen xede den jardueran lan egingo luketen langileei dagokien hitzarmen kolektiboa zein den adierazi beharko du kontratistak, adjudikaziodun izan baitaitezke. Era beran, kontratua esleitu ondoren benetan aplikatzen diren lan baldintzei buruzko beharrezko informazio guztia eman beharko du.

Adjudikaziodunak hitzarmen kolektiboan jasotako lansaria ordaindu beharko du, dagokion kategoria profesionalaren arabera, lanek irauten duten bitartean. Lansaria ezin izango da aipatutakoa baino baxuagoa izan.

Adjudikaziodunak hitzarmen kolektiboari buruz ematen duen informazioa Amorebieta-Etxanoko Udaleko kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Prozedura honetan parte hartzen duten lizitatzailleek lizitazio, adjudikazio eta betearazpen prozesuen ondoriozko datu guztiei erakunde gardentasuna emateko betebeharra onartzen dute amaitu arte.

Aginduen liburua

Kontratistak une oro obran “aginduen liburua” gorde eta eskura izango du, 462/1971 Dekretuak, martxoaren 11koak, 1971ko uztailaren 17ko Ogasun Ministerioaren Aginduz garatutakoak, xedatutakoaren arabera. Gainera, Amorebieta-Etxanoko Udalari entregatuko dio, obra hartzen duenean.

Baimenak hirugarrenei

Amorebieta-Etxanoko Udalak eta Obra Zuzendaritzak beren gain hartzea erabaki dituzten kontratuak eta gestioak alde batera utzita, obrak epean behar bezala gauzatzeko kontratista partikularren, elkarteen, enpresen eta erakundeen aurrean beharrezkoak diren baimenak eta lizentziak lortzez arduratuko da.

Xede horiez, kontratistak nahasitako bakoitzak bere eskubideak eta aginpideak erabiliz ezartzen dizkion baldintzak eta aginduak onartu beharko ditu. Gauza bera egin beharko du eskaerekin edo gomendioekin, arrazoizkoak badira edo Administrazioaren iritziz obra hobe garatzeko komenigarriak badira.

Kontratistari eska dakizkion gastuak

Lizitazioaren iragarkien eta obrak gauzatzearen, kontratua legezkatzearen ondoriozko zergei buruzko gastuak, baita zuinetaren lan eskudunak eskaintzeagatik tasak, likidazioa eta obretan aplikagarria den beste edozein ere kontratistaren kontura izango dira, indarreko xedapenen arabera, aipatzen diren moduan eta zenbatekoan.

Obrak gauzatzen diren bitartean mota guztietako saiakuntzen gastuak kontratistaren kontura izango dira eta zenbatekoan nahiz ehunekoak ez du inolaz ere egingo esleipen koefizienteak. Zenbatekoa obra aldaketak direla-eta kontratua zabaltzeagatik gehitu ahal izango da.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Obra Zuzendaritzak esleipendunari, saiakuntzen gastuen ezaugarriekin, enpresa homologatuak, ofizialak edo pribatuak, kontratatzea eska diezaioke, obraren kalitate kontrola burutzeko Zuzendaritzaren argibideei jarraiki eta aurreko paragrafoan kontuan hartu den gehikuntzarako aukera dago.

Obra amaierako agiriak

Kontratistak obra amaierarako beharrezko agiri guztiak aurkeztu beharko ditu, azken egiaztagiria eman baino lehen behar bezala baliozkotuak.

11.- KONTRATUAREN GAUZATZEAN ZEHAR HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEEI DAGOKIENEZ KONTRATISTAK DAUKAN ERANTZUKIZUNA

Obrak burutzean kontratistaren mendean beharrean dabilzan beharginek egindako jardueren, akatsen edo arduragabekerien ondorioz, edo obrak txarto antolatu, babestu eta seinaleztatu direlako edozein pertsona, jabetza, zerbitzu publiko edo pribaturi kalte-galeren bat eragin ezkeror, kalte-galera horien erantzulea kontratista izango da. Ildo horri eutsiz, kontratista kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragiten dizkien kalte-galeren arduraduna izango da, SPKLTBak 214. artikuluan xedatutakoaren arabera. Kontratazio organoaren aginduaren ondorioz berehala eta zuzenean sortu diren kalte eta galera ororen aurrean, kontratazio organoa bera izango da erantzulea, legeek ezarritako mugen barruan.

Xede horiez, enpresa esleipendunak nahitaezko aseguruak izango ditu. Nolanahi ere, kontratua esleitu baino lehen, kontratistak hurrengo aseguruaren kontratuei buruzko polizen kopiak eskuratu beharko ditu. Izan ere, horiek esleipendunak kontratatu eta bere kargura mantenduko ditu eraikuntzaren denboraldian eta berme epean:

Eraikuntzako arrisku orotarako aseguruak Egindako obrek izan ditzaketen kalteak eta egiten ari direnek izan ditzaketenak estali beharko ditu. Galera edo kalteak eragin duenaren iturburua eraikitze-aldikoa denean edota obra-kontratuan zehaztutako betebeharrak betetze aldera egindako lanen ondorioz aldi honetan zein beranduago sortarazitakoak aseguraturata egongo dira. Aseguratutako zenbatekoa, gutxienez, kontratuaren prezioaren bestekoa izan beharko da. Betebehar hau betetzat joko da enpresak lehendik zeukan eraikuntzako arrisku orotarako aseguruak esandakora zabaltzen bada. Horretarako beharrezkoa da aseguraturata eskatzen den zenbatekoa estalita gelditzea eta horrela egiaztatu beharko du horretarako ahalorde askietsia duenak aseguru konpainiaren izenean.

Erantzukizun zibilaren aseguruak, gutxienez 300.000 eurokoa. Erantzukizun orokorra, ugazabarena, gurutzatua eta lan bukatuei buruzkoa izango du. Aseguratu osagarri bezala Amorebieta-Etxanoko Udala agertuko da.

Kontratua kontratistaren arrisku eta zorira gauzatu da eta, ondorioz, berme epean antzeman daitezkeen ezkutuzko akatsez eta ondasunen kalitateaz erantzungo du.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Aurreko atalean xedatutakoaz salbuetsiak geldituko dira hautematen diren akatsak kontratazio organoaren zuzeneko eta berehalako jarduera edo aginduaren ondoriozkoak badira.

Lanek dirauten bitartean kontratazio organoak obrako zuzendari bat izendatuko du eta honen ardura izango da ondokoak burutzea: kontratuaren xede den obra egiaztatu, koordinatu, zaindu eta ikuskatzea. Adjudikaziodunari dagozkio lanen berehalako zuzendaritzaren ondoriozko erantzukizunak eta baita egindako obren kontrol eta zaintzaren ondoriozkoak eta bertan utzitako materialen ondorioz izan daitezkeenak.

12.- KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio-organoak, kontratua hobetu ondoren eta interes publikoko arrazoiak medio, aldaketak hitzartu ahalko ditu, I. Liburuko V. Tituluan aurreikusitako kasu eta moduan, eta SPKLTBren 211. artikuluan araututako prozeduraren arabera. Hala eginez gero, behar bezala justifikatu beharko du espedientean.

Araubideari dagokionez, APKLTBko 105 eta 108 bitarteko artikuluetan eta 210, 219 eta 306 artikuluetan xedatutakoa beteko da. ´

Aldaketak egin ahal izateko, nahikoa justifikatu beharko da APKLTBko 107. artikuluan aurreikusitako inguruabarretakoren bat gertatzen dela. Aldaketa horiek ezingo dituzte aldatu likidazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak eta, era berean, beharrezko egiten dituen kausa objektiboari erantzuteko beharrezko aldakuntzak baino ezingo dituzte sartu.

13.- OBRAK ONARTZEA ETA BERMEAREN EPEA

Egoera onean dagoenean, obra eman edo kontratuaren xedea bete eta hurrengo hilabetearen buruan onartuko da. Helburu horrekin idatzitako aktaren bitartez egituratuko da.

Kontratuaren zati gisa, kontratistak urbanizazio osoaren altxamendu topografikoa aurkeztu beharko du as built planoak ematerakoan Udalaren estandarren arabera eta Udalari ez zaiolarik ezer kostako. Topografikoak urbanizazioak azkenean izango dituen elementu guztiei buruzko informazioa izango du (obra egin aurreko sareak, jardueraren ondorioz egindako sare berriak, hiri altzariak, etab.), bere elementu guztiei dagozkien koten eta tamainen datuekin (sareen diametroak, kuxteta kotak, zoladuren sestrak, etab.).

Obrak onartzeko moduan ez badaude, hala agerraraziko da aktan eta obretako zuzendariak ikusi diren akatsak adierazi, beharrezko argibideak zehaztu eta zuzentzeko epea ezarriko du. Akatsak zuzentzen direnean edo egiteko epea igarotakoan,



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

adostasunari buruzko akta idatziko da ala, bestela, epe berria emango da zuzenketak egiteko edo kontratua suntsituzat joko da.

Obraren izaera kontuan hartuta, bermearen epea **URTEBETEKOA** izango da, positiboki onartzen den unetik zenbatzen hasita. Orduan, behin betiko bermea itzultzeari ekingo zaio.

Bermearen epean, kontratistak lanak kontserbatu beharko ditu, baldintza teknikoen agirian xedatutakoarekin bat eta obra zuzendaritzatik jasotzen dituen argibideen arabera. Hala, aipatu epean sor daitezkeen kalteei edo narriadurei erantzungo die.

Dena den, bermearen epea igaro ostean obra aurri egoeran geldituko balitz, kontratistak kontratua ez betetzearen ondorioz eraikuntzan ezkutuko akatsak egon direlako, kontratista izango litzateke kalte-galera horien erantzulea. Hamabost urtean izango du ardura hori, obren onarpena egiten denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan kalte edo galerarik gertatuko ez balitz, kontratista edozein arduratetik aske geratuko litzateke.

Kontratazio organoak, hiru hilabeteko epean, onarpena egiten denetik aurrera zenbatzen hasita, burututako obren amaierako ziurtagiria onetsi beharko du eta kontratistari ordainduko zaio, kontratuaren likidazioaren kontura.

14.- ZEHAPENAK KONTRATISTARI EZ BETETZEARENGATIK

Kontratua gauzatzeko epeei buruz.- Kontratuaren gauzatze-epeak (osoa edo, hala badagokio, partzialak) betetzeari dagokionez, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratista atzeratzen bada, Administrazioak hori ebaztea eta bermea galtzea edo **egunero zigorrak** jartzea erabaki dezake. Bigarren kasuan, **kontratuaren prezioaren 1.000 euroko 1 euro kobratuko dira.**

Atzerapenarengatik zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5en multiplora iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena du kontratua suntsitzeko edo zigor berriak jarritz gauzatzen jarraitzeko.

Prestazioen gauzatze partzialari buruz.- Berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratistak kontratuan definitzen diren prestazioen gauzatze partziala betetzen ez duenean, Administrazioak kontratua ebaztea edo zigorra jartzea erabaki dezake. Azkeneko kasuan, hori kontratuaren prezio guztiaren 100eko 10 izango da.

Zigorrak kontratazio-organoaren erabakiz jarriko dira eta berehala bete beharko dira. Ordaintzeko, ordainketa oso edo partzialaren kontzeptupean kontratistari ordaindu beharreko zenbatekoetatik kenduko zaizkio. Bestela, aipatu ziurtagirietatik ezin direnean kendu, osatutako bermea erabiliko da.

15.- KONTRATUA HUTSALTZEKO ARRAZOTIAK



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Obra-kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira, agiri honetan aurrez ikusitakoez gain, SPKLTBak 223. eta 237. artikuluetan xedatutakoak.

16.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Amorebieta-Etxanoko Udalari dagozkio kontratua interpretatu, betetzeko orduan sortzen diren zalantzak ebatzi, interes publikoa dela-eta aldatu, ebazpena erabaki eta horren ondorioak zehaztearen eskumenak, betiere SPKLTBk eta Kontratuen Legeari buruzko Araudi Orokorrak xedatutako mugekin eta horien baldintza eta ondorioen arabera.

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

17.- ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratu honen esleipena kontratazio-organoak egingo du, kontratazio-mahaiak hala proposatuta, izapidetze arruntaren eta prozedura irekiaren bidez.

Kontratua esleitzeko oinarri gisa erabilitako eskaintzen balorazio-irizpideak, modu automatikoan zenbatu ezin daitezkeen eta zenbatu daitezkeen irizpideetan berezita, garrantziaren arabera joera beherakorrarekin eta horiei atxikitako haztapenarekin antolatuta, hurrengo hauek dira:

AUTOMATIKOKI ZENBATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK:

PROPOSAMEN TEKNIKOA:

(Gehienez 10 orrialde alde batetik idatziak, plangintza barne; hizkiaren gutxieneko tamaina: 10; orrialdearen gehieneko tamaina: A4, plangintza izan ezik; hori tamaina handiagoan aurkez daiteke. Gehieneko hori gainditzen duten eskaintzak zigortuak izango dira: -0,5 puntu gehiegizko orrialdeko gehienez -5 puntura arte)

5. Jarraitu beharreko bitarteko eta prozedurak ezartzea, garabiak eta kamioiak zehatz-mehatz non egongo diren adieraziz, jarduerak zenbat denbora iraungo duten eta dagokion plangintza. Egurrezko egiturari bereziki erreparatuko zaio, elementu hori gauzatzeko proposatutako enpresak identifikatu beharko direlarik (gehiez 3 enpresa). **Enpresa hauek identifikatzea kontratuaren funtsezko baldintza izango da. 15 puntu**
6. Irisgarritasun plana, obraren garapenak baldintzatzen dituen sarbide guztiak kontuan hartzen dituen eta hautabidezko trazadura, baita seinaleztapena ere. Obraren zaintza eta kontrol lana. Komunikazio plana eta kontsulta nahiz larrialdirako harremanak adieraztea, lanordutik kanpo sartuta: **10 puntu**
7. Proiektuaren azterketa zehatza, bere ezaugarri bereziki erreparatuz (ez dira

0-40 puntu



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

<p>edozein obratarako izan daitezkeen egikaritzapenerako deskribapen orokorrak baloratuko).10 puntu</p> <p>8. Gauzatu beharreko lanak aztertzea eta aurrez ikusiak ez dauden lanak zerrendatzea, beharrezkoak badira kontratua gauzatzeko. Hala balego, horien balorazio proposamena:5 puntu</p>	
<p><u>HOBKUNTZAK:</u></p> <p>Mantentze-lanak errazagoak izan daitezzen, jesarleku zirkular, kurbatu eta linealei ezarri beharreko Elondo-zurezko listoi materiala hobetzea.</p> <p>Hobekuntza behar bezala justifikatuta aurkeztuko da, adieraziz nola burutu beharko liratekeen mantentze-lanak eta zenbateko maiztasunarekin.</p> <p>Adierazitako zehaztapenak beteko ez balira berme-epean, lizitatzailak proposatutako listoiak kendu beharko ditu proiektuan jasotako Elondo-zurezkoak jartzeko.10 puntu</p>	0-10 puntu

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEETAN LORTU BEHAR DEN PUNTUAZIOAREN GUTXIENKO ATALASEA: SPKLTBk 150.4 artikuluan xedatutakoarekin bat, balorazio orokorrean onartuak izateko, automatikoki kuantifika ezin daitezkeen irizpideetan eskaintzaileek gutxieneko puntuazioaren atalasea lortzea eskatuko da. Ildo horri jarraiki, kontratazio-mahaiak ez ditu kontuan hartuko 30 puntu lortzen ez duten eskaintzak.

AUTOMATIKOKI ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK:

<p><u>ESKAINZA EKONOMIKOA:</u></p> <p>Puntuak jarraian adierazten den formularen arabera banatuko dira:</p> $PO = \text{MaxP} \times \left(1 - \left(\frac{O_i - O_b}{O_b} \right) \right)$ <p>Azalpena:</p> <p>PO= Eskaintzaren puntuak MaxP=Puntuak gehienez Ob= Eskaintzarik baxuena Oi= Baloratu beharreko eskaintza</p>	0-30 puntu
<p><u>ZHAZTUTAKO BERMEA ZABALTZEA (1 URTE)</u></p> <p>Zehaztutako bermearekiko urte osagarri bakoitzeko.2,5 puntu</p>	0-10 puntu
<p><u>BETEARAZPEN EPEA</u></p> <p>Ez dira baliozkotzat hartuko eta ez dira onartuko hirugarren klausulan ezarritako kontratuaren gehieneko epea %25 baino gehiago murrizten duten proposamenak.</p>	0-10 puntu



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Proposamen horiei 0 puntu emango zaizkie.

Proposamena eta balorazioa denbora neurtzeko asteka egingo da (hilabetean 4,3 aste daudela ulertuko da).

Puntuak jarraian adierazten den formularen arabera banatuko dira:

$$PO = MaxP * \frac{PE - O}{PE - MaxR}$$

Azalpena:

PO= Eskaintzaren puntuak

MaxP=Puntuak gehienez

PE= Egikaritzapen epea (asteka)

O= Baloratu beharreko eskaintzaren epea

MaxR=Eskaini eta justifikatutako epea gehienez jaistea

Eskaintzen izaera neurrigabea edo ezohiko ezarritako helburu diren parametroen arabera hautemango da, Herri Administrazioetako Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorraren 85. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraiki.

18.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Kontratazio-prozedura horretan pertsona fisikoek eta juridikoek parte hartu ahal izango dute, horiek espainiarrak izan zein atzerritarak izan, betiere jarduteko erabateko gaitasuna badute eta APKLTBren 60. artikuluan (kontratatzeko debekuak) jasotako inguruabarretatik edozein bete ez badute.

Era berean, euren kabuz edo baimendutako pertsonak ordezkatuta egin ahal izango dute, betiere horretarako egiletsitako behar besteko ahalordearekin. Pertsona juridikoaren ordezkartzan kide batek esku hartu badu, orduan horretarako gaituta dagoela agirien bidez egiaztatu beharko du. Kasu batean zein bestean, ordezkariaren gain aipatutako kontratatze ezgaitasun-arrazoiek eragina izango dute.

Gainera, lizitatuzaileek kontratu honen xedearekin zerikusi zuzena duten jarduerak burutzea izan behar dute helburu.

Europako Batasuneko Estatu Kideen enpresa ez-espainiarrek jarduteko gaitasuna Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorraren I. Eranskinean jasotako lanbide- edo merkataritza-erregistro hauetako batean inskribatutako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko dute: Europako Batasuneko Estatu Kideen eta Europako Gune Ekonomikoari buruzko Akordioaren Sinatzaileen Erregistroak.

Europako Batasunekoak ez diren Estatuko pertsona fisikoek edo juridikoek Espainiako Diplomaziako Misio Iraunkor egokiak luzatutako txostenaren bidez



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko Estatuak aldi berean Espainiako enpresen eta Administrazioarekin nahiz SPKLTBren 3. artikuluan zenbatutako bestelako erakundeekin kontratazioa egitea onartzen duela. Hala, beharrezkoa izango da enpresa horiek Espainian bulegoa irekita izatea, eragiketak egiteko ahaldunak edo ordezkariak izendatuta, eta Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotea.

Nolanahi ere, enpresa ez-espainiarrek kontratatzeke gaitasuna egiaztatzeke aurkeztu dituzten agiriak modu ofizialean gaztelaniara edo euskarara itzuli beharko dira.

Administrazioak ondore horretarako aldi baterako eratutako enpresarien elkarteak kontratatu ahal izango du (horretarako beharrezkoa izan gabe horiek eskritura publikoan formalizatzea esleipena egin arte). Hain zuzen ere, erantzukizun solidarioa izango dute Administrazioari begira, eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatuko da. Lizitatzailerak ezin izango du aurkeztu proposamen bat baino gehiago. Era berean, lizitatzailerak ezin izango dute beste batzuekin aldi baterako enpresa-elkarteak eratuko, euren buruarekin egin badute, ezta aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan agertu. Arau hauek hausteak suposatuko du honen aurka doazen proposamen guztiak ez direla onartuko.

Europar Erkidegoan espainiarrak ez diren enpresaburuak sailkatuak ez badaude, nahikoa izango da kontratazio organoaren aurrean kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa SPKLTBak 75. artikuluan xedatutakoarekin bat egiaztatzea. Kaudimen teknikoari dagokionez, 76. artikuluan xedatutako bitarteko bat edo gehiago erabil daitezke.

19.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, baita berari lotutako dokumentazio teknikoa ere, erakusgai egongo da Amorebieta-Etxanoko Udalaren bulegoetan, 8:30etik 14:30era, egun balioudun guztietan, lizitazio honen iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta agertu ondoko egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte. Era berean, agiri hauek Amorebieta-Etxanoko Udaleko kontratatzailearen profilean ikusgai egongo dira (www.amorebieta-etxano.eus).

Proposamenak Amorebieta-Etxanoko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dituzte, aurretik adierazitako ordutegi berean eta 26 egun naturaleko epearen barruan, kontratuaren iragarkia Bizkaiko Adizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatuta. Eskaintzak aurkezteko azken eguna larunbata edota egun baliogabea balitz, astelehenera arte edota hurrengo egun balioudunera arte luzatuko da.

Hautagaiak eskaera postaz bidaltzen badu, bidalketa postetxera noiz eraman duen justifikatu beharko du eta Amorebieta-Etxanoko Udaleko Erregistroari iragarri beharko dio **eskaera bidali duela telefaxez edo telegramaz egun berean eta betiere 14:30ak baino lehen**. Baldintza horiek betetzen ez badira edo bidaltze jakinarazpena



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

eskaerak hartzeko epea igarotakoan jasotzen bada, eskaera ez da onartuko. Hala ere, epea amaitu eta egutegiko hurrengo hamar eguneko epean dokumentazioa jaso ez bada, ez da inondik inora onartuko.

Eskaintzaileek hiru gutun-azal itxi (A, B eta C) aurkeztu beharko dituzte, berak edo ordezkatzan duen pertsonak sinatuak. Bakoitzean honako izenburua agertuko da: “ANDRA MARI KALEAN ESTALKI BAT JARTZEKO PROIEKTUAREN LANAK EGITEA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO PROZESUAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”.

. Gutun-azal bakoitzean, enpresaren izena, proposamena sinatu duenaren izen-abizenak eta zeinen izenean jarduten duen agertuko dira, eta bi gutun-azalak sinatuta egon behar dute. Gutun-azal bakoitzaren barruan, aparteko orri batean, edukia jarriko da, zenbakien arabera adierazita.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du enpresariak agiri honetako baldintzak guztiz onartzen dituela eta administrazioarekin kontratatzeke eskatutako baldintza guztiak betetzen dituenaren aitortpen arduratsua egiten duela.

Proposamenek baldintzen agiri honetan ezarritako ereduak errespetatuko dituzte eta isilpeko izaera izango dute lizitazio unera arte.

Lizitatzailerak bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Ezin izango du ezta ere aldi baterako beste enpresa batzuekin elkartuta aurkeztu proposamena bera bakarrik ere aurkeztu bada, ezta aldi baterako enpresa elkarte batean baino gehiagotan aurkeztu ere. Printzipio hau onartuko ez balitz, aurkeztutako proposamen guztiak baztertuta geldituko lirateke.

A gutun-azalaren azpizenburua “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA” da, ondoko agiriak bilduta:

- j) Eskaintza aurkeztu duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionala.
- k) Lizitatzailerak pertsona juridikoa izatekotan, eskaintza aurkezten duen pertsonaren nortasun agiri nazionalaz gain, eratu edo aldatzeko eskritura, hala dagokionean, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutakoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikatu lekiokien merkataritza legediaren arabera inskribatuta egotea eska litekeenean. Hori beharrezkoa ez bada, eraketa-eskritura edo -agiriaren bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna, edota estatutuen edo sorrerako egintzaren berri ematen duen agiriaren bidez; agiri horretan jarduerak zein arau bete behar duen zehaztuko da eta, gainera, kasuan kasuko erregistro ofizialean egon beharko dira inskribatuta. Europako Erkidegoko estatu kideren batekoak izan baina Espainiakoak ez diren enpresaburuen kasuan, erregistro profesional edo merkataritza erregistroren batean inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, dagokien estatuko legeriak hori eskatzen badu.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

- l) Lizitatzailleak bere izenean jarduten ez badu, edo hori sozietatea edo pertsona juridikoa denean, proposamen ekonomikoa sinatu duenak kontratazio-organoaren aurrean jarduteko behar besteko ahalordea duela eta horrekin bere izenean nahiz kasuan kasuko pertsonaren edo erakundearen ordezkari gisa kontratatzeke behar besteko ahalordea duela egiaztatzeke agiri sinesgarriak aurkeztu beharko ditu.
- m) C TALDEAN, 8 AZPITALDEAN (zurgintza), 2 KATEGORIAN kontratistaren sailkapena egiaztatzen duen dokumentua, nahikoa eta iraungi gabekoa, 1098/2001 Errege Dekretuak 25. eta 26. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Errege Dekretu hau abuztuaren 28ko 773/2015 Errege Dekretuak aldatu zuen. Klasifikazioaren iraupena abuztuaren 28ko 773/2015 EDko laugarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa izango da.

Bestela, kaudimen ekonomikoa onartu eta merkataritza-erregistroan ala dagokion erregistro ofizialean gordailatu diren urteko kontuen bitartez egiaztatuko da. Aipatu kontuetan azkeneko hiru ekitaldi amaituetatik gutxienez batean negozioaren urteko bolumena 350.000 eurokoa edo hortik gorakoa izan dela egiaztatu beharko da.

Era berean, kaudimen teknikoak izaera bereko lanen zerrendarekin egiaztatu daitezke, interesdunak horiek azkeneko bost urteetan egin baditu. Zerrendari organo eskudunak igorri ostean behar bezala gauzatu direla adierazten duten ziurtagiriak erantsiko zaizkio Nolanahi ere, gauzatze handiena izan den urteko zenbateko metatuta gutxienez 170.000 eurokoa izango da.

- n) Kontratatzeke debekurik ez duela baieztatzen duen esanbidezko adierazpen arduratsua. Lizitatzailleek, SPKLTBren 73.1 artikuluan ezarritako baldintzetatik edozeinen ariora, SPKLTBn 60. artikuluan aipatutako inguruabarretatik edozein bete ez dutela adierazi beharko dute. Bada, III. Eranskin gisa erantsitako ereduak erabili ahal izango da. Europako Batasuneko Estatu kideak direnean edo Europako Gune Ekonomikoaren sinatzaileak direnean, adierazpena SPKLTBren 73.2 artikuluan ezarritakoaren ariora egin ahal izango da.

Lizitatzaillearen Erregistroak luzatutako ziurtagiriaren bidez egindako egiaztapena. Aurretik aipatutako agiri guztien ordez, a) atalean jasotakoa izan ezik, ondoko erregistroetatik edozeinek luzatutako ziurtagiria ezarri ahal da: Bizkaiko Lurralde Historikoko Lizitatzaillearen Erregistroak; Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialak; Estatuko Lizitatzaillearen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak; Erkidegoaren sailkapen-ziurtagiria.

Kasuan kasuko erregistroak aurkeztutako ziurtagirian jasotako inguruabarrei dagokienez, eskatutako agirien egiaztapena aurkeztuko da.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Edozein kasutan ere, ziurtagiriarekin batera lizitatzailleak egindako adierazpen arduratsua aurkeztu beharko da. Adierazpen horretan ziurtagiri egokian jasotako inguruabarrek inolako aldaketarik jasan ez dutela azpimarratuko da.

- o) Enpresari batzuk lizitazioan Enpresen Aldi Baterako Elkartea eratuta esku hartu badute, horietako bakoitzak jarduteko gaitasuna aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko du. Era berean, proposamenean ABEE bakoitzak egin beharreko xedearen zatia adieraziko dute, horien guztien kaudimen-betekizunak zehaztu eta egiaztatzeko. Elkartea hori Administrazioaren aurrean eraginkorra izan dadin, nahikoa izango da proposamen-idazkian hori sinatu duten enpresarien izenak eta parte-hartzea eta horietako bakoitzaren partaidetza zehaztea, bai eta kontratuaren indarraldian Administrazioaren aurrean ordezkari gisa jardungo duen pertsona edo erakundea izendatzea ere. Hain zuzen ere, Amorebieta-Etxanoko Udalaren aurrean erantzukizun solidarioa izango du. Lizitazioa enpresen elkarteari esleitu zaionean bakarrik horiek egiaztatu beharko dute horren eraketa eskritura publikoaren bidez kontratazio-organoaren aurrean, betiere elkartearen ordezkaria edo ahaldun bakarra behar besteko ahalordeekin izendatuta, eskubideak egikaritu eta kontratuaren betebeharrak betetzeko hori iraungi bitartean. Enpresarien Aldi Baterako Elkarteen iraupena kontratua iraungi arte izango da.
- p) Hala badagokio, enpresa talde baten kide izatearen aitorpena. Lizitazio honetan nork formulatzen duen proposamena bereizita adieraziko da.
- q) Atzerriko enpresen kasuan, mota guztietako ordenetako Espainiako Epaitegien nahiz Auzitegien jurisdikzioaren mende jartzeko adierazpena, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitezkeen intzidentziei begira, eta, hala denean, atzerriko jurisdikzio-foruari uko eginda.
- r) Kontratuaren xede diren lanak burutuko dituzten langileen hitzarmen kolektiboa adierazi beharko da, adjudikaziodun direnerako.

B gutun-azalaren azpizenburua “MODU AUTOMATIKOAN ZENBATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK” da, ondoko edukiarekin:

- b) Proposamen teknikoa, ondokoak jasoko dituena:
 - Bitartekoak eta prozedurak
 - Irisgarritasun plana
 - Proiektuaren azterketa zehatza.
 - Burutu beharreko lanen azterketa.
 - Hobekuntzak.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

C gutun-azalaren azpizenburua “MODU AUTOMATIKOAN ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK” da, ondoko edukiarekin:

- 3) IV. Eranskin gisa agertzen den ereduari egokitutako proposamen ekonomikoa.
- 4) Berme-epea handitzea.

Gutun-azal bakoitzaren edukia errespetatzen ez duten eskaintzak baztertuak izango dira ez baldin badituzte modu automatikoan kuantifikatu daitezkeen irizpideei eta modu automatikoan kuantifikatu ezin diren irizpideei dagozkien agiriak behar bezala desberdindu.

Administrazioak, dela esleipenaren aurretik dela esleipenaren ostean, eta kontratuaren aribidean, A, eta B gutun-azaletan jasotako agirien edukien egitasuna egiaztatu ahal izango du. Izan ere, enpresak aurkeztutako datuak eta inguruabarrak faltsuak izanez gero, kontratua deuseztatuko da, kontratistari egotzi dakioken ez-betetzearen ondorioz, behin betiko bermea galduta, edo, hala denean, bermerik eratu ez bada, horren zenbatekoaren kalte-ordaina ordainduko dio. Gainera, Administrazioari ere konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen duten kalte-galeren kalte-ordaina ordaindu beharko dio.

Kontratua esleitu ondoren eta behin errekurtsioak aurkezteko epea igarota, horiek formalizatu gabe, proposamenekin batera aurkeztutako agiriak adjudikaziodun izan ez diren interesdunen esku geratuko dira. Data horretatik aurrera, **itzulketa-eskabidea hilabeteko epean bete ez bada, hori suntsitu egingo da.**

Lizitatzailerek eskatutako agiriak jatorrizkoan aurkeztu ahal izango dituzte edo, bestela, hauen kopia, notario batek edo Administrazioak behar bezala benetakotuta.

20. AGIRIEN KALIFIKAZIOA, ENPRESEN HAUTESPENA ETA PROPOSAMENEN IREKIERA

20.1. Agirien kalifikazioa, ongitu daitezkeen akatsak.

Proposamenak aurkezteko epea igaro ondoren, kontratazio-mahaiak lizitatzailerek aurkeztutako administrazio-agiriak ireki eta egiaztatuko ditu, bai epean bai forman, hots, A gutun-azala.

Aurkeztutako agirian ongitu daitezkeen akatsak edo ez-betetzeak antzeman badira, orduan interesdunei fax edo posta elektronikoko bidez komunikatuko die, eta, gehienez ere, 3 egun balioduneko epea izango dute komunikazioa egiten denetik zenbatuta, antzemandako akatsak ongitu ahal izateko.

Agirian ongitu ezin daitezkeen funtsezko akatsak edo gorabeherak ageri badira, proposamena baztertu egingo da.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Lan horiek amaitu ondoren, kontratazio-mahaiak lizitazioari begira onartutakoen, baztertutakoen eta bazterketa horren arrazoien gaineko esanbidezko adierazpena egingo du.

20.2. Proposamenen irekiera.

Lehen ekitaldia. B GUTUN-AZALEAN: MODU AUTOMATIKOAN ZENBATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK jasotako agiriak Amorebieta-Etxanoko Udalaren kontratatzailearen profilean adierazitako egunean eta orduan irekiko dira.

Ekitaldi honetan aurkeztutako proposamenen, lizitatuzaileen izenaren, agiriak kalifikatzeko emaitzaren, eta, hala denean, akatsen ongitzearen berri emango da. Ostean, mahaiak eskaintza teknikoak jasotzen dituen gutun-azalak ireki ahal izango ditu, aurkezpenaren hurrenkera aintzat hartuta, eta horietako bakoitzaren edukia azalduko du.

Jardundako guztia agirietan jasoko da.

Bigarren ekitaldia. Balorazioa egin ostean, eta hala denean, txosten teknikoa igorrita, ekitaldi publiko berrirako deialdia egingo da, eta hori Amorebieta-Etxanoko Udalaren kontratatzailearen profilean adierazitako egunean eta orduan egingo da.

Lehenbizi, modu automatikoan zenbatu ezin daitezkeen irizpideen balorazioaren emaitza ezagutaraziko da.

SPKLTBk 150.4 artikuluan xedatutakoarekin bat, balorazio orokorrean onartuak izateko, automatikoki kuantifika ezin daitezkeen irizpideetan eskaintzaileek gutxieneko puntuazioaren atalasea lortzea eskatuko da. Ildo horri jarraiki, kontratazio-mahaiak ez ditu kontuan hartuko 30 puntu lortzen ez duten eskaintzak.

Bigarrenez, C GUTUN-AZALEAN: MODU AUTOMATIKOAN ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK jasotako agiriak irekiko dira, eta ondoren, proposamen ekonomikoak irakurriko dira.

Eskaintza abantailatsuen artean berdinketa emango balitz, kontratuaren esleipena eskaintza ekonomikoan zenbateko baxuena aurkeztu duen lizitatuzaileari egingo zaio; berdinketak jarraituko balu, kontratuaren esleipena Kontratazio-mahaiak egindako zozketa bidez egingo da.

Jarraian, eta aurretiaz txosten egokiak eginda, kontratazio-mahaiak kontratua esleitzeko proposamena hori egin behar duen kontratazio-organoari helaraziko dio.

21. ESKAINTZEN SAILKAPENA, ADJUDIKAZIOA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

21.1. Eskaintzen sailkapena.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Kontratazio organoak gehienetik gutxienerako hurrenkeran sailkatuko ditu aurkeztu diren proposamenak, betiere, proposamen horiek normalak ez diren balioak edo neurritz kanpoko balioak dituztela irizten ez bada. Horretarako, kontuan hartuko ditu pleguan adierazitako esleipen irizpideak eta egoki iriztitako txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu.

Kontratazio organoak eskaintza abantailatsuena egin duen lizitatzaileri eskatuko dio, hamar egun balioduneko epean, eskakizuna jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, ondoren zehazten diren ziurtagiriak aurkezteko:

- Zerga-obligazioak eta Gizarte Segurantzarekiko eginbeharrak bete direla egiaztatzen duen justifikazioa, ziurtagiriak proposamenarekin batera aurkeztu direnean izan ezik.
- Kontratua esleitzeko zenbatekoaren %5eko behin betiko bermea eratzeari (BEZa kanpo).
- Eraikuntza eta erantzukizun zibileko arrisku orotarako aseguru polizen kopia, Amorebieta-Etxanoko Udala aseguratu gehigarri gisa agertuz.
- Adjudikazioduna ABEE bat denean, goian aipatutako agiriez gain, epe berean, eraketaren eskritura publikoa, Aldi Baterako Elkarteari atxikitako IFK eta behar besteko ahalordea duen ordezkariaren edo ahaldunaren izendapena jaso beharko da.

Adierazitako epean eskaera ez bada behar bezala betetzen, lizitatzailak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da. Kasu horretan, eskaintzen sailkapen ordenari jarraituz, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileri.

Bestalde, esleipendunak publizitate-gastu ofizialak ordaindu beharko ditu (gehienez 900 €).

21.2. Kontratuaren adjudikazioa.

Kontratazio-organoak eskatutako dokumentazioa jaso eta egutegiko bost eguneko epean kontratua esleitu du. Halaber, esleipena sei hilabeteko epean egingo da, proposamenak irekitzen diren egunaren biharamunetik zenbatuta (B gutun-azalak).

SPKLTBren 161. artikuluan aurreikusten denez, epe hori 15 egun baliodunetan luzatuko da 152.3 artikulua zehaztutako tramiteak jarraitu behar direnean, balio anormalak edo neurritz gainekoak dituzten eskaintzen kasuan.

Eskaintza anormaltzat edo neurritz gainekotzat jotzen denean eskaintzaileri (edo eskaintzaileri, hala dagokienean) entzuzgo zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoan egon beharko da.

Kasu honetan, eskaintzailak emandako arrazoiak eta txostenak aintzat hartuta, Kontratazio Organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

eskaintzaileari egingo dio esleipena, beti ere Administrazioaren lanak egiteko gaitasuna duela; bestela, anormaltzat edo neurritz gainekotzat jotzen ez den proposamenari egingo zaio esleipena.

Halaber, ezarritako epeak igaro badira eta ebazpen-erabakirik eman ez bada, interesdunek eskaintzak atzera bota ahal izango dituzte, baita, hala denean, gordailututako bermeak ere.

Kontratazio-organoak ezin izango du adierazi lizitazioa hutsala dela, baldin eta eskaintza edo proposamen onargarria badago, agirian jasotako irizpideak aintzat hartuta.

Kontratuaren esleipena, ziodun ebazpenaren bidez, erabaki eta gero, lizitatuzaileei jakinaraziko zaie. Aldi berean, esleipena kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean sinatzeko epea zehaztuko da, SPKLren 156.3 artikuluekin bat etorritz.

21.3. Kontratua formalizatzea.

Sinatu egiten denean gauzatuko da kontratua.

Kontratua hamabost egun baliouduneko epean sinatuko da, adjudikazioa jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, SPKLren 151.4 artikulua xedatutakoari jarraiki.

Kontratua ezin izango da burutzen hasi aurretiaz sinatu barik, premiazko edo presazko izaeraz izapidetutako espedientea izan ezik.

Esleipendunak, arestian aipatutako epearen barruan, kontratua legezatzeko administrazio-dokumentua sinatu beharko du eta horri administrazio-baldintzen agiria erantsiko zaio.

Kontratistak aurkeztutako eskaintzak kontratu-balioa du, hobekuntzei, proposamenei eta kontratuaren burutzapenean eragina izan dezaketen bestelako alderdiei begira, ezarritako balorazio irizpideen arabera, kontratuaren esleipenerako erabakigarriak izan direnak.

Kontratua formalizatuta jasotzen duen agiria beti administrazio-agiria izango da, eta erregistro publiko orotan sartzeko baliozko titulua izango da Bestalde, kontratua eskritura publikoan formalizatuko da, betiere kontratistak hala eskatu badu, eta horrek egilespenaren ondorioz sortutako kostuak ordainduko ditu. Kasu horretan, kontratistak kontratazio-organoari kopia eskuetsia emango dio.

III. IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

22. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Agiri honen arabera egindako kontratuak administrazio-izaera izango du, eta bertan jaso ez den zatiari dagokionez, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuan, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatu duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuan, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean, SPKLTBren aurka ez dagoen guztian eta Herri Administrazioen kontratazioari buruzko gainerako arauetan xedatutakoa aplikatuko da.

Administrazio-klausula berezien agiri hau eta espedienteari erantsitako gainerako agiri teknikoak bat ez badatoz, agiri honetan xedatutakoa aplikatuko da.

23. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratuaren interpretazioari, aldaketari, ebazpenari, eta ondoreei buruz sortutako gaiak kontratazio organoak ebatziko ditu, eta horrek emandako ebazpenek administrazio-bide agortuko dute.

Kontratuaren ondoriozko auzi-gaiak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende geratuko dira. Hala ere, alderdiek auziak arbitrajearen bidez konpondu ahal izango dituzte, indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

I. ERANSKINA: ABALAREN EREDUA

..... erakundeak (kreditu-erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen izena), IFZ duena, helbidea (jakinarazpenak eta agindeiak jasotzeko) duena,n, eta bere izenean (ahaldunen izen-abizenak) jardunda, egintza honetan behartzeko behar besteko ahalordeekin, agiri honen beheko aldean aipatutako ahalordeen askiestea kontuan izanda,

ONDOKOA ABALATU DU

..... (abalatuaren izen-abizenak edo sozietatearen izena), IFZ duena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 95. artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta, BEHIN BETIKO BERME bezala, ANDRA MARI KALEAN ESTALKI BAT EGITEKO PROIEKTUAREN LANAK xede duen kontratua esleitzeko, Amorebieta-Etxanoko Udalaren aurrean, zenbatekoarekin (letretan eta zenbakietan).

Aseguratuak adierazi du, bere erantzukizunpean, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorraren 56.2 artikuluan eskatutako betekizun guztiak betetzen dituela. Abal hori modu solidarioan eman da behartu nagusiari begira, ordainketa ez eskatzeko onurari beren beregi uko eginda, eta Gordailuen Kutxa Orokorraren edo gainerako Herri Administrazioen organo baliokidearen lehenengo agindeia ordaintzeko konpromisoa hartuta, betiere Herri Administrazioen kontratuei buruzko legerian, horien garapen-arauetan eta Gordailuen Kutxa Orokorraren arauketa arautzailean ezarritako baldintzen mende.

Abal horrek Amorebieta-Etxanoko Udalak edo horren izenean legez horretarako gaitutakoak horren ezereztea edo itzulketa baimendu arte indarrean iraungo du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan eta legeria osagarrian ezarritakoari helduta.

Berme-agiri hau data berean Abalen Erregistro berezian inskribatu da zenbakiarekin.

.....n, 2017koaren(e)(a)n

(Erakundearen izena)

(Ahaldunen sinadura)

C.G.D.ko AHOLKULARITZA JURIDIKOAREN EDO ESTATUKO
ABOKATUTZAREN AHALORDEEN ASKIESTEA

(Probintzia/Data/Kodearen zenbakia)



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

II. ERANSKINA: KAUZIO-ASEGURUAREN ZIURTAGIRI-EREDUA

..... erakundeak (aseguratzailearen izena), zenbakiko ziurtagiria duena (aurrerantzean aseguratzailerak), helbidea eta IFZ dituen, eta bere izenean (ahaldunen izen-abizenak) jardunda, egintza honetan behartzeko behar besteko ahalordeekin, agiri honen beheko aldean aipatutako ahalordeen askiestea kontuan izanda,

ONDOKOA ASEGURATU DU

..... (aseguratuaren izen-abizenak edo sozietatearen izena),IFZ duena, aseguru-hartzaile gisa, Amorebieta-Etxanoko Udalaren aurrean, (aurrerantzean aseguraturak), zenbaterako iritsi arte (letretan eta zenbakietan), Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan, garapen-arauetan eta **ANDRA MARI KALEAN ESTALKI BAT EGITEKO PROIEKTUAREN LANAK** xede duen kontratua arautzen duten administrazio-klausula berezien agirian jasotako baldintzen mende, aseguratuari begira aurretik aipatutako arauen eta gainerako administrazio-baldintzen arabera sortutako betebeharrei, enbarazuei eta sor daitezkeen gainerako gastuei aurre egin ahal izateko.

Aseguratzaileak adierazi du, bere erantzukizunpean, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorraren 57.1 artikuluan eskatutako betekizun guztiak betetzen dituela.

Primaren ordainketa egin ez bada, dela bakarra, lehenengoa dela ondorengoak, horrek ez dio emango eskubiderik aseguratzailerari kontratua suntsitzeko, eta hori ez da geratuko azkenduta, ezta aseguratzaileraren estaldura etenda edo betebeharretik aske geratuko ere. Izatez, aseguratzailerak bermea gauzatu beharko du.

Aseguratzaileak ezin izango dio eragotzi aseguratuari begira aseguru-hartzailearen aurka ezarri ditzakeen salbuespenak.

Aseguratzaileak aseguratuari Gordailuen Kutxa Orokorraren edo gainerako Herri Administrazioen organo baliokidearen lehenengo agindeia ordaintzeko konpromisoa hartu du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan eta gainerako garapen-arauetan ezarritako baldintzen mende.

Kauzio-aseguru horrek Amorebieta-Etxanoko Udalak edo horren izenean legez horretarako gaitutakoak horren ezereztea edo itzulketa baimendu arte indarrean iraungo du, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legean eta legeria osagarrian ezarritakoari helduta.

.....n, 2017koaren(e)(a)n

(Aseguru entitatearen izena)

C.G.D.ko AHOLKULARITZA JURIDIKOAREN EDO ESTATUKO
ABOKATUTZAREN AHALORDEEN ASKIESTEA (Probintzia)



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

III. ERANSKINA: KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ DUELA BAIEZTATZEN DUEN ESANBIDEZKO ADIERAZPEN ARDURATSUAREN EREDUA

.....jaunak/andreak, helbidea
duenak, eta NAN zenbakia duenak, bere izenean eta/edo
..... enpresaren ordezkari gisa, helbidea duena,
eta IFK duena

AITORTZEN DU

Bera, berak ordezkatzeko duen Merkataritza Sozietatea eta Sozietatearen gobernu-organoa osatzen duten pertsonak ez daudela murgilduta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan Administrazioarekin kontratatzeke zenbatutako debeku-, ezgaitasun- edo bateraezintasun-auzietan.

Era berean, enpresa horrek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren betebeharrak eguneratuta dituela jaso da.

Eta idatziz jaso geldidadin, **ANDRA MARI KALEAN ESTALKI BAT EGITEKO PROIEKTUAREN LANEi** buruzko kontratazioan prozedura irekiz parte hartzeko aurkeztu behar den dokumentazioari dagokionez, adierazpen hau egiten dut.

.....n, 2017koaren(e)(a)n

Izp.:



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

IV. ERANSKINA: PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

Nik, jaunak/andreak,
..... helbidean bizi naizen honek,
..... NAN zenbakidunak eta telefono-zenbakidunak,
erabateko gaitasun juridikoarekin eta jarduteko gaitasunarekin, norberaren izenean
(edo enpresaren ordezkari gisa), Amorebieta-Etxanoko Udalak **ANDRA
MARI KALEAN ESTALKI BAT EGITEKO PROIEKTUAREN LANAK**
kontratatzeko deitutako prozedura irekiaren berri izanda, ondokoa aitortu dut:

1°. Hasieran zenbatutako lanak egiteko konpromisoa hartu dut (nahitaezko
zerbitzuak) prezio honen truke:.....€/urteko (zenbakiz eta letraz),
gehi (hala badagokio)€/urteko, %21eko BEZari dagokiona;
prezioak kontzeptu guztiak barne hartzen dituela ulertu beharko da, zergak, gastuak,
tasak eta edozein zerga arloko arielak, kontratistaren industria etekina barne.

2°. Baldintza teknikoen agiria, administrazio baldintzen agiria eta kontratu hau
eraentzen duten gainontzeko agiriak ezagutzen ditudala, guztiak onartu eta beteko
ditudala.

3°. Ordezkatzen dudana enpresak berau ireki, instalatu eta funtzionatzen egoteko
indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen
dituela.

.....n, 2017koaren(e)(a)n

Izp.: